

BUM BALTZIZKA

Bum baltzizkak, eizara joanik, leoi bat eskuratu zun. Nola baiña? Orlegiak ziran Bum baltzizkaren begiak; illea oso kiskurtua, larrua beltzerana, ta elurra bezin zurriak ortzak.

Ontaz iñoiz ba'ziarduten, Bum'ek parre egiten zun gogotik; eta zirkuko kaiola guztien artean atxi-atxika, leoia zegoanaren aurrean gelditzen zan, eta burni-sare bitartetik besoak sartuaz, aren griña-mordoai sendo oraturik, ots egiten zun:

—Atzi aut! Atzi aut!

Eta inguruko guztiak onela zioten: «Bum bai dugula azkarra!» Ta, izan ere, zoriantsu bizi zan.

Bera, noski, zirkuko aberentzat adiskide ta lagunik miñena ere.

Katamotzak ezten zitun Zeus'en seme zan; bai Zeus ille gorriskadun erraldoi beltz, host katamotz gazte oker zeuzkanarena. Etziran beste abereen lagun Zeus'en katamotzak, orren leialak beintzat. Arroputz eta seta gaiztoko ziran aiek, eta zirkuko piztien artean lenengotzat zeuzkaten beren burnak.

Gurditzar bat zun ezilariak zirkuko piztitegi ondoan, margo bage ta muriztu samarra.

Gau batean, egun artako jai-aldia amaitu ta zirkuko guztiak lo zetzatela, negar-ulu erkin etenbagea eutzun zan, Zeus'en etxe ibilkorrean. Gosez ildako katu bat zirudian, miau luzeka.

Elepantea esnaturik, eta bere belarri aundiak astindu ta zoko guztietara begiak zorroztu arren, etzun ezer ikusi.

Bertatik, ala ere, Zeus'en gurdiko leoi iriki zear, gauza beltz bat begiztu zun, kuxa zarrean ikaraz ta deika.

Burutzarra arbildu ta musua sartu zun bertara. Ta aurtxo bat zan, guztiz pitiusa, doi-doi ikusten zana.

—Txiii!! murreza egin zun elepanteak; baiña aurtxo baltzizka etzan ixildu, negar zegian oraindik.

Orduan Dunbo'k —onela dute izena munduko elepante guztiak— bere mutur luzean artu ta gora jasorik arduraz, txit gozoro kulunkatu zun, elepanteak ere kantatzen dakitelako, onela abesturik:

«Lo, lo, ene aurtxo...
Or dabil mamoa;
lo gutxi ba'dagi,
jango du beltzxoan.»

Eta etzun Bum'ek gau artan negarrik egin geiago, ezta beste iñoiz ere Dunbo'k gau-aurtzain goxo, bai zizkion abesten lelo ta seaska-kanta eztiak:

«Izarño, goiz-argia...
Goi-eguzkitxo!
Ez ari oiuz, beltza;
Dunbo elepanteak
zaintzen dizu loa.»

Eta aurtxoak laster ikasi zun zutik egiten; bai ta mando-gurdi traskilletik berez jeisten ere.

Leoiak mormox egun batean:

—Zer da gure aurrean mugitzen dan miñe ori?

Elepanteak azaldu zion:

—Aurtxo bat duzu. Ume-zurtza, aurki; jaiotzorduan il zitzaion ama, Zeus du aita.

Eta leoiak, ark kaiolan eskuak sarturik, zangoak, hereak eta kumeena, ikutu ta igurtziz gozarazten utzi zizkion.

Ango abere guztiak jakin zuten laster aurtxoari gerta zitzaiona; ta bakar-bakarrik, lur gainean iraulka ta atz loituak mizka, egun osoa igaro oi zun umetxoari errukia artu zioten.

Eta aurtzak kili-kili egiten zion sointxoan, sudur-aizeka; Samurñe tximuak, ordea, bere kumeekin nasi jolasten pozarren ikusten zun, iñondik ere ari kalterik ez zetorkion arduraturik; tentelkeriak egin oi zitun fokeak ere, ben ta itxuratsu, mutur gainean kaiol-zokoan gordeta zeukan pelota zarra jartzen zula, ta aurtxoa bildurtu ez zedin, etzuan gauzez txiliorik egiten, fokak geienik orrela egin oi duten arren; «Nabar zaldiak ere bizkarrean eramane oi zun, ihiltzeko ezarleku dizditsua lepo gain zeukanen batez ere: auxe zan Bum'entzat jolasketarik atsegintsuena.

Ekiñaren ekiñez, azkenik, ibiltzen, jauzi egiten, mintzatzen eta abar, ikasi zitun baltzizkak.

—Nire aurtxo, egunetik egunera, ederrago dago —esan zun bein elepanteak, arro antzean.

—Zure aurtxo?, leoiak orro.

—Zure semea?, Samurñe'k txilio.

—Zure semea?, Nabar'ek irrintzi.

Ta kaiola guztietatik irten zan asarrezko galdera berdiña: katamotzak, orraitio, etzuten zaratarik atera, olako eztabaideetan ez baltziran egundo sartzen.

—Aurtxo au, guztiona da; bai, Bum damona dugu zer bait beintzat, guztiok maite duguiako ta berarekin arduratzen geraldako —itz egin zun leoiak, beste abereak pakera ziranen.

Elepanteak orduan, buru makurtuz, lecia errazoian zegola, esan zion.

Gauetan Dunbo'k, beti bezela, leiotik zear sartu zun mutur tzarra, baiña ezer esan bage. Bum'ek muin eman zion; ta, gau-giro ederra bait-zan, Dunbo'k bere bizkarrera jaso-erazi zun. Baltzizkak, ostera, belarriak astindu zizkion tiraka, ta samurkiro esan:

—Gauza bat ba-dakizu? Guztiok maite raituet, baiña zu besteak baiño pizkat geiago.

Poz-eztitan jarri zan elepantea, ta agoan ura artu ta mutur tzarra luzaturik, gaizto eizez gero, katamotzen kaiola ureztatu zun; aiek bereala esnatu ta gurriinka asi ziran marmarati, suak barrua artuta.

—Zer duzue, ene kumeok?, Zeus'ek oi gurdi barratik.

Dunbo'k, bildur-ikaraz, kutxa zar oetza koan laga zun aurtxo; ta katamotzai asarrezka ixildu zanean, Bum'ek eskatu zion:

—Ipui bat, otoi, konta egidazu.

—Bein baten, elepantetxo bat zan, oso polita...

Eta «Elepantetxo ta amona», ots, gure «Buru-gorritxo», bukatu zanean, txikiak geiago eska zion, irrika biziz:

—Geiago, geiago...

—«Aurtxo-ama batek zazpi aurtxo-kume zeuzkan. Beñiola...»

Azkenera orduko, Bum lotan zegoan la-sai-lasai.

Dunbo'k berriz, oso bigun, izarea mutur-erpiñez artu ta osoan estalli zion Aurtxoari oiña.

Goizetan, giro ona zanean beñik-bein, txit ikusgarria ango jolasa. Aberetegia zabaltzen zuteneko, umetxoaz bete oi zan inguru guztia; aiek abere guztiai zion bildur pizkat, baiña piztiai batez ere.

Bum sarritan aurtxo edo zaldi gainera igo oi zan, ta txikiak auen inguruan pillatzen ziranen, baltzak esaten zion azpikoari:

—Urbildu adi, ta putz-ezak gogotik. Au gertatzen zanean, umetxoak bildurrez ta garrasi baten zijoazten andik. Ta Bum'ek bai orduan parre-algara!

Baiña gero, txikiak paketzearren, abere-kontuak esan oi zizkien.

Txiki batzuk etzuten egunik uzten, zirkua urian zan bitartean, ara jo bage; ta andik aldatzean ta Bum'i agur egitean, oso goibel gelditzen ziran. Adiskide miñak egin zirakako, kolore ta margozko bolatxoak eman oi zizkieten; baltzizkak, berriz, lastan zitulako, leoiaren illesmototseko puzkaren bat, edo Nabar'en perra zarren bat, edo-ta Dunbo'k zirkuan lan zegian bitartean apaingarritzat zerabilen lumaren bat ematen zion, esku-erakutsi antzean.

Bum'ek bost urte egin zituan, ta Zeus'ek, lenbizikoz, atera zun ihiltalditxo bat egitera.

—Etzerate konturatu, bear bada, zein liriña dan nire semea?, esan zun arrosko, txerpolari, ezilari, jostari, Paul jaun eta Perguson andereñoaren aurrean.

—Uste duzu, ez dakigula? Maite dut nik zure umea, nerea bai litza heste bai, azaldu zun Perguson andereñoak, Samurñe'n jaubeak.

Geienez Bum'ek Perguson andereñoarenean jan oi zun, ta onek egiten zizkion aldean zeramazkin jantzitxoak.

Bum'ek eta tximu-kumak galtza berdiñak eramane oi zituzten, gorriak edo urdiñak. Gaitik, tximinoak bezela, bilosik zebillan. Neguan ez, ostera; neguan berogarriz ondo apaindua zebillan.

Zeus'ek egun batean esan zion:

—I, ene seme, aundi egiten aizenen, ezle izango aiz.

Bum'en barnea oso poztu zan, ta atsegin izango zitzaion bertatik, azi ta beingoan gizon egitea.

Egun artatik, zirkura joaten utzi zion, arratsaldero.

Bum'ek, ikustegiko ezarlekuan exerita, billaldean zear jira-biraka zekusan Dunbo, kolorezko lumaz lurua osoan ornitua. Baldomer jaunak, aren bizkarrean tinko, ots zegian:

—Adi!, adi! asi-zorian dago zirkua. Leoiak, katamotzak, tximiñuak... Jolastu zaiteze gogotik; eta... azkenean, Dunbo ta

ni irtengo gera etorri zeratenoi eskerrak ematera.

Tximuak txirringutsean zebiltzan, bai ta ostikolari bai lircan jokatu ere; Bum'i, ordea, irri egiten zioten muxinga, ta baloia jaurtzen zioten, baltzizkaren murrun-bildur bage.

Irrilariak zuri zeramaten arpegia ta surra gorritzatua. Alkarri ostikoka ari ziran; borobil bikaiñak ateraten zituzten belarrietatik, eta ondoren gora bota.

Leoi aita betarte-illun irten zan bere iru leoi-kumeekin; auek aita bezin aindi baziran. Kaiol barruan sartu zan ezlea, ta jauzi-erazi ta zango hiren gain tente jarri-azo zitun; eta aietatik bat atzeratu zalako, ugel-biurritz jipoia astindu zion ezleak; min aundia artu zun leoiak antza negar-malko gizen zuria erori zan beñik-bein bere begi-zuloetan beera. Bum'ek ere negarrari eman zion.

Foka etzan ezer egiten ausartu, lotsa bait-zan

—Tira, ederki saiatzen zera-ta; bizkortu zun Bum'ek, alboratu zitzaionen.

Azkenerantza agertu zan Zeus. Bum'ek so egin zion bere aitari, ta arrezkero, arengan ezarri ta aren zirkin eta igikinetan euki zitun bere begiak, arnas-otsik ere atera bage.

Kaiol barruan baiño politago ematen zuten katamotzak; baiña oso arro-putzak.

Zeus'ek ots: «A», ta katamotzak jauzi edo salto bat egiñik, gizonak eskuetan zeukan suzko ustai baten zear igarotzen ziran. Ustai gora ta bera zerabilen, baiña katamotzak etzuten egundo ere utsik egiten.

Begira zeudenak iñori ez lakoxe txalo-otsez eskertu zioten. Bum laster konturatu zan ura oso atsegin izan zitzaielako zala, ta bera ere poz-etzitan jarri zan, ta zur ta sor iñoiz ez bezela begiratu zion aitari.

Leoi txikia negarrez zegoan oraindik ere, ezleak askotxo samindu zulako. Paul jaunagana joan zan Bum. Paul jauna lodi aundi zan, ta zirku osoaren jaubea.

—Paul jauna, itz egin bear dizut.

Gizon ura here arazoan ari zan arren, opa zuna esateko agindu zion.

—Leoi-ezleak ez ditu ondo artzen aiek —asi zan aurtxo—. Jo egiten ditu, ta leoiak ez dute olakorik bear, on leial ta esaneakoak dira-ta.

Paul jaunak ardura antzo begira zun.

—Nola dakik ik ez dutela zigorkadarik

bear? Berak jakingo du, iñork baiño obeki, zer egin; bere ditu leoiak, eta nik ezin ezer esan.

—Onak dira; ez dute, ba, ezer txarrik egiten; ez diote, gaiñera, bera baiño sendoago izan arren, ozkarik egiten. Eta zer-bait ba'diotsazu, zuk esana egingo du noski; zuk nai izan ezkerro, ba, bota dezakezu zirikutik, ere.

Paul jaunari eder izan zitzaion txikiaren adimen-jokua, ta ezleari adi-eraziko ziola agindu zun.

Gerozkoan Bum bere lagun abreen bitarteko ta zaindari izan zan. Zei edo larrina arnas-oska baten igarorik, Paul jaunaren etxean dei egin oi zun, edo beste edozein lekutan inguratzen zun, beti kanpotik diudii zeraman alkondaratik tiraka.

Dunbo'k arantzea dauka ankan josita, ta beingoan kentzen espadiozute, arrastian ezingo du ezer egin.

Beste bein, otsoari jateko gutxi jarten ziotelako kontua zan; gosez omen zegoan gaixoa. Edo fokak ur geiago bear zula. Edo Nabari perra bat andeatu zitzaiola.

Eri huteko zirku-ekiñaldia amaitzen zanean, Bum eta abereak itun ta muzin samar jarten ziran, egun askotan alkar ikusi bage egon oi ziralako. Baiña gero, keiolak atonduten asten ziranean eta Zeus'ek, oi bezela, elepantearen alboan here gurdi tzarra jarten zunean, Bum eta onen lagunak alaitasun berriz ezkortzen ziran.

Abagune artan, zirkuua, here etxe ta here abereak, zumardi eder, zugatz orlegi ta lore usaintsuz apaindutako baten ondoan jatti zituzten.

Bum zumardi artara joan oi zan kirkira billa, ta gero arrapatzen zitun guztiak tximinen kaiolan sartzen zituan. Auekin bildur ziran tximuak, eta garrasi baten ari oi ziran; Bum'ek parre zegian onen uzkur ta txepel zekuselako.

—Aita, neronak ere zerbait egin nai dut egun batean. Zergatik ez didazu uzten. Dunbo'ren gaiñean zanka-lepo jende aurrean agertzen?

Kolore askorekin jantzi zuten, eta irten zun.

Zarta-zarta txalo jo zioten, ta Dunbo zoriontsu zebillen jiraka jendearen aurrean.

Beste abereai, jakiña, bekaitz pizkatek ozk-egin zien barnean.

—Zergatik ez duzu irtetzen, gu bezela, txirringutsu gaiñean?, esan zioten tximiuak.

Otsoak ere onela itz egin zion: —Ni ez naute iñoiz ere erakustegira atezaten. Umeen ikusgarritzat naukate soil-erakustegira atezaten. Ez duzu uste biok irten ezkerro, zer-bait egingo genukela?

Onak parreka asi ziran, otsoa min lotu zuten mintzaten zalako; txaldan ergel-erakustegira atezaten. —Ni ez naute iñoiz ere erakustegira atezaten. Umeen ikusgarritzat naukate soil-erakustegira atezaten. Ez duzu uste biok irten ezkerro, zer-bait egingo genukela?

Paul jaunari atsegin izan zitzaion Bum Dunbo'ren lepo gain ikustea. Zeus'i esan zuten egunen baten egitarauan sar zezakeala Bum ere, umeak jendearen gogoko ziralako, ta beldreak ba'ziran batez ere.

Aun-Abaiña, Zeus'ek etzun nai izan. Aun-Abaiña, Zeus'ek etzun nai izan. Aun-Abaiña, Zeus'ek etzun nai izan. Aun-Abaiña, Zeus'ek etzun nai izan.

—Aita nun dago. Ikusi nai nuke!

—Katamotzak, gogaikarri izanik ere, erki lan dagite. Aitak eta aiek bukatzen ziran, nolako txalo-zartadak entzuten ziran.

Aren lagunak ixillean lotu ziran. Auekin leoiak ots:

—Aitari zor diozu ori. Guk ere ba'genuek bezin ezle trebea, gauza berdiñak edo abereak egingo gintuzke.

Bum beti zegon here aita noiz irtetago min.

Arratsale artan, Zeus'ek besteetan baiño mingo zerabilzkin suzko borobillak; katamotzak, ala ere, etzuten utsik egiten. Irkena palta zan zapart egiteko, Zeus'ek ari erdiratu zun besoa ta katamotzak guzi, baiña bear zun tokitik igaro beazean, ezlearen gaiñera erori zan, ua lurren eratsirik.

Begira zeudenak, negarrez, txilioka ari ziran. Bum'ek ere negarrari eman zion, here aita odol gorritan asca zeramatela batean. Baiña ezin izanzan kanpora irten, goz guztiak zutik bai zeuden. Gaiñera, buldomer jauna bertatik irten zan Dunbo'ren batera, etzala ezer gertatzen eta jostaldiak jarraitzen zula, adieraziaz. Ta Bum'ek parre zegian gogotik batez ere ikusi ziazduten gizon txiki aiek ziralata.

Bum aitaz oroitu zan eta aldegin zun aiek. Aren gurdi tzarrean etzegon iñor ere, ta abereak muturka ari ziran katamotzakin. Bum ere zertxobait esatera abia zan, baiña Ferguson andereñoak here etxe-eraman zun.

—Aita nun dago. Ikusi nai nuke!

—Zuro aita zerura joan da, artez-arte. Orain begira daukazu, ta egunero ikusiko zaitu.

—Baiña nik bera ikusi nai nuke, illa ba'da ere. Eta andik urrundu zan. Dunbo'k, bere mutur luzean artu ta sor-baldara igo-azi zun.

Aurtxoak samatik oratu zion, eta negar egin zun, negar-malkoak Dunbo'ri belarrietara egotzirik. Leoiak orruka asi ziran, kaiolak urratu ta irten nairik.

—Itxoïn guk irten artean, ta ikusiko duzute gain duzutena, katamotz erailtzailleak. Samurñe'k iraiñez eraso ta josten zitun: auntzak eta zaldia, berriz, txint zegiten sudur-aizeka, esi gaiñez salto naiean; baiña ezin ziran urten iñolaz ere, anak lotuta zeuzkatelako.

Dunbo'k ere here mutur tzarrez jo zun katamotzen kaiola, baiña ezin puskatu, burnizkoa zan-eta. Otsoak, ergeltxo bai zan, negar ta negar, etzun hesterik egiten.

—Guk ez genun ura iltzerik gura, —zesaten katamotzak, izu-lanorrian. Ezbear bat izan zan, aurki, Guk maite genun Zeus. Bum masaitu zan, ta etzun geiago negarrari egin.

—Guse naiz, esan zun. Samurñe'k jaurtzen zizkioten kakauete ta gozokiak eman zizkion, ta Dunbo'k ardura guztiz estali zun here ogetxoan —dagoneko ogera baitzun—, ta ari kontu kontari luzaroan jardun zun, here ipuin-sorta agortu arte.

Goizean, aitarekin oroitu zan Bum eta negarrari eman zion herrero. Ferguson andereñoak gosaria atera zion, ta Paul jauna berarekin egon zan zati batean.

—Etzeauke negarrik egin bear, Bum; gizontxo egiña zara-ta. Ez duzu geiago aitarik ikusiko, baiña guk maite zaitugu ta geurekin biziko zera. Tori, eros-zazu izozki bat. Erosi zun izozkia ta luzaro ekin zion zotza miazka.

Kanpotar asko zan inguruan, ta iñork ere etzion jaramonik egiten. Paul jaunak naikoa diru eman ziolako, beste izozki bat ere erosi zun, ta gero zumardira joan zan. Belar ezean etzun zan.

—Gizontxo naiz ta aita ikusi nai dut,

Bernat Etxepare
 Salamanka'ko ikastetxean.
 Bum baltzizka, KAEgutegia 12 (1962) 121.
 Abadiño'ko Il-obi arria, KAEgutegia 12 (1962) 121.
 Ilhak, KAEgutegia 12 (1962) 133-134.
 Igarkizunak, KAEgutegia 12 (1962) 133-134.

—Ta guk zer egingo dugu zu bage?,
 leoiak zaputz.
 Dunbo'k etzun ezer esan; mutur luza-
 rekin estu-estu egin zun bakarrik.
 —Bum, prest daukazu zeure gauzak,
 oles egin zun Perguson andereñoak.
 —Joan egin bear, joan egin bear nai-ta-
 ez, zion negarrez. Baiña ezazute aitzuko,
 ezta ala? Ta itzultzen naizean, ezagutako
 nauzute, bai ta egin ere; ta ez duzute beste
 aurtxoekin bezela nirekin egingo; ni Bum
 naiz, ba, zuen ume baltzizka, ta ez diot
 inori ere esango zuok itz eta parre egiten
 duzutenik; ezta negar egiten duzutela ere,
 ezleak min ematen dizuenean. Ta Dunbo'k
 ipui geiago ikasiko ditu neri esateko, ezta
 ala?
 Laztan gozoa eman zion Dunbo'k bere
 mutur ezkotuaz.
 —Ta Samurñe'k leku ixillean gordeko
 dizkit gozoki guztiak. Gordeko dizkidazu?,
 ulu ark.
 Baietz esan zion Samurñe'k.
 Perguson andereñoa billa joan zitzaion
 eta ezin jarraitu agurketan.
 —Agur, Bum! —oiu egin zioten, Egu-
 nero zai gauzkazu.
 Ta Bum'ek esku biakin muñik asko ego-
 tzi zizkien.
 Oreñak bidera irten zion.
 —Ba-naramazu zeurekin?
 —Bai, orixe, diotsa, oratu ta txit estu
 besarkaturik.
 —Nora ou abere arrekin?, galdetu zion
 Perguson andereñoak.
 —Nerekin daramat, diotsa Bum'ek.




—Ezingo duk. Mueta ontako abererik ez
 dute ikastetxean artzen.
 Bum'ek, Oreina besoetan, jarraitu zun
 bizian.
 —Eraman nezake, jauna? Galde zun lei-
 zian.
 Jaunak, gogor zitzaion arren, erantzun
 zion:
 —Ezin dezakezu, Bum. Laga bear duzu
 oreiña. Baiña etzaite estutu, etorriko zera
 noizean-noiz hera ikustera.
 Malko-tanto diziditsuak zerioten aurtxo-
 ari masail beltzak barna.
 —Oa zere lagunekin, Oreintxo, esan zion
 lastanka.
 —Bildur ematen didate; ain aundiak
 dira!
 —Onak dituzu, ala ere. Aurrerantzean,
 ou bage, geiago maite izango zaitue.
 Zalpudi dotore baten sar zuten Bum, eta
 etaman.
 —Joan da, etsoak mormox.
 Baiña danak itun be itun zeudelako,
 inork etzun tautik esan.
 Bertatik ulu samina eldu zan berengana.
 Bazterrean kukuriko zegoen oreiña argitu
 zun ilargiak. Inork etzun, alere, ura poz-
 teko gogorik, aietan txikiena hera zan
 arren.
 Orein gaxuak negarrez ekin zun, aurtxo
 bat iduri.
 Tadunbo'k, lengo naigabez aitzu ta abe-
 retxo mutur luzean arturik, kanta-kantari
 kulunkatu zun:
 «Lo, lo ene orein,
 or dabil, mamoa;
 lo gutxi ba'dagi,
 jango du oreiñas.»

C. Sauter

GURUTZEGRAMAK

Eskerretik eskumara:
 1.—(Atz. aur.) Onuratsu. 2.—Izan aditza-
 ren jokaldi bat. 3.—Izena. 4.—Aots-laguna.
 (Atz. aur.) Dirutza. 5.—Antxiña. Euskal-abi-
 zena. 6.—Koska. Maitagarri. 7.—(Atz. aur.)
 Alper. (Atz. aur.) Lokarri. 8.—Almenik ez
 izan. Aotsa. 9.—(Atz. aur.) Artu ezazu. 10.—
 Izan aditzaren jokaldi bat.

Goitik behera:
 1.—Musikako nota bat. 2.—Ikusteko oi
 da. 3.—Aots laguna. (Atz. aur.) Izan erazi.
 4.—Zorrotz. (Atz. aur.) Bizi. 5.—Lo. (Atz.
 aur.) Bizkor. 6.—(Atz. aur.) Kukumarto.
 Inoiz. 7.—Ardi zaitzaille. Aots laguna. 8.—
 Beste mundura joan dira. 9.—Guraso. 10.—
 (Atz. aur.) Bizkaiko erri baten izena.



LENGOAREN AZALPENA

- 1.—L. 2.—Rag (Gar). 3.—IOPOK (Ko-
 poi). 4.—IDNUGAL (Lagundi). 5.—UDN.
 Rotia (Aitor). 6.—ZTNUA (Auntz). RAPZI
 (Ipar). 7.—ZEATZ. LOL. 8.—MOROKIL.
 9.—AARON. 10.—ZAN. 11.—N.
- 1.—Z. 2.—UTZ. 3.—IDNEM (Mendi). 4.—
 IDNUAOA (Aoaundi). 5.—RON (Nor).
 ATRAZ (Zarta). 6.—LAPUR. ZORAN (Na-
 roz). 7.—GOGOR. KON (Nok). 8.—KATA-
 LIN. 9.—LIPOL (Lopil). 10.—AZI. 11.—I.

